



# ESKUALDEKOAK BIKAIN AIZKORRI-ZEGAMAN

Hamabi kirolarik hartu zuten parte maratoian, herenegun; azkarrenak Jose Manuel Villegas eta Luis Lasa izan ziren 4

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Astearta**  
2009-05-26

VII. URTEA 1.711. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Mendizaleak Uzturretik jeisten, herenegun. Goian, bidean, Ertzaintzaren ibilgailuak. HITZA

## 'Txirrita'-ren omenaldia eragotzi du Ertzaintzak

**TOLOSA** Herenegun eguerdirako deitu zuten omenaldia Uzturren; Ertzaintzak, estreinakoz, bidea moztu zuen ekitaldia eragozteko 3

## Zazpi lekutan ipini dute ikurrina aurten ibartarrek

**IBARRA** Bai Euskal Herriarik eta Haitzetan Rajuk antolaturiko ekimenak bukatu du denboraldia 7

## Amazoniari buruzkoak izango dira Amalur jardunaldiak

**TOLOSA** Bihartik ostiralera izango dira, Tolosako Ekinbide Etxearen eskutik 2

## Ruben Saralegi eta Anjel Arrospide finalean izango dira

**AIZKORA** Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan, maila desberdinetan ariko dira 7



Herenegun amaitu ziren jardunaldiak, arabiar tailerrekin. IDOIA LAHALDALGA

## Kultura ugariren topagune izan da Mundujaia ekimena 2

**DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa**

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

Nazioarteko lehiaketak  
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)  
**INFORMAZIOA 943 310 873**

Hertz Paselekua 96 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

# Amazoniako oihanaren taupadak sentitzeko

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Ekinbide Etxeak Udalen laguntzarekin antolatuta, hemen dira, urteroko moduan, Amalur jardunaldiak. Iaz Artikoa ezagutzeko aukera izan bazen, aurtengoan, Amazoniaraino bidaiatzeko parada emango digute, bihartik ostiralera bitarte izango diren hitzaldi eta ikus-entzunezkoen bidez.

«Afrikak mundu desberdin bat suposatzen du, askatasunezko lurra; Asiak bere gizatasunagatik, bere sentsualitateagatik maitemintzen du, eta Amerika orokorrean eta Amazonia zehazki, seguraski hitz batean defini daiteke: natura». Horrela definitzen dute TEEkoek Amazonia. Hala, egun hauetan zehar izen zaileko baina erakargarriko herri mordo bat ezagutu ahalko da, yanomamiak, zoeak, matsiguenkak eta beste hainbat. «Beste garaietatik berreskuratuak diruditen beste izakiez gain, oihaneko taupadak osatzen dituztela ikusiko dugu. Baina age-rian jarriko dugu ere zoragarria, ukitu gabea, sartzina, birjina, paradisuak... bezalako ezaugarriak azken garaitan kutsatua, zatartua, hondatua... bezalako ezdekatuak direla».

## Abel Muñizi omenaldia

Antolatzaileek jardunaldien baitan, Abel Muñiz omenaldia dute; «ez genuke aukera hau pasatzen utzi nahi omenalditxo egin gabe pasa den udan zoritkarrez hil zen zientzialari on eta persona hobea zenari. Gogoan dugu Tolosan izan zeneko unea, 2005ean, bati baino gehiagori ahaztu ezinezko oroitzen utzi baitzizkion. Bere alde, berarentzat eta herritar guztiei zuzenduak doaz Amalur IV. Jardunaldiak, Amazonia izeneko unibertso natural onengatik harrapatzen uzteko helburuarekin».



Amazonia gertutik ezagutzeko aukera izango da. HITZA

## » EGITARAUA

### Maiatzak 27, bihar

■ **Lurraren taupadak**. Ramon Olasagasti kazetariak aurkeztuta, Jon Arretxek *Lurraren taupadak* lanaren inguruan hitz egingo du. Munduan zeharreko bidaia ugari egin ditu Arretxek, eta horien berri eman du bere lanetan. Liburu honetan, 1995eko udan bizikleta hartu eta 3.000 kilometro baino gehiago nola egin zituen Amazonian kontatuko du.

■ **Lekua, ordua eta hizkuntza**. Kultur Etxean, 20:00etan, euskaraz.

### Maiatzak 28, etzi

■ **'Amazonia. Azken deia'**. Alberto Luengo biologoak aurkeztuta, Luis Miguel Dominguezek *Amazonia. Azken deia* lana aurkeztuko du. Dominguez nazioartean sona duen naturalista da, eta ekologia eta ingurumenaren inguruan egin du lan batik bat. Lan honekin Amazoniaren ikuspegi guztiak eta bere

ezaugarriak ezagutzeko aukera izango da.

■ **Lekua, ordua eta hizkuntza**. Kultur Etxean, 20:00etan, gaztelaniaz.

### Maiatzak 29, ostirala

■ **'Beste herriak'**. Juan Velasco kazetariak aurkeztuta, Luis Pancorbok *Beste herriak* lana emango du ezagutzera. Kazetaria, antropologoa, bidaiaria eta esploratzailea. TVE telebista katerako *Beste herriak* izeneko lanaren 130 kapitulu eginak ditu, 1981etik, eta 20 liburu inguru idatziak ditu. Ikusgai izango den lan honetan, Amazoniako indigenengana gerturatuko gaitu Pancorbok. Hain zuzen ere, Yomibaton kokaturiko kogapakori taldea, eta euren bizimodua ikusteko aukera izango da.

■ **Lekua, ordua eta hizkuntza**. Kultur Etxean, 20:00etan, gaztelaniaz.



## Hirukidekoak fin areto futbolean

**KIROLA** ■ Hirukide ikastetxeko alebiren mailako mutilen taldeak eta infan-tilen mailako neskenak Areto Futboleko Txapelketen finalak jokatu zituzten pasa den asteburuan. Alebin mutilak, 6. mailakoak lehenengo postuan geratu ziren, txapelketa eskuratu zuten, beraz, eta neskek, bestalde, txapeldunorde geratu ziren. Bi taldeak ere «oso pozik» daude lortutako emaitzekin. HITZA

## Galtzaundik euskarazko ludoteka antolatu du uztailerako

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak urtero bezala euskarazko ludoteka antolatu du uztailerako. Ludoteka uztailaren 30era bitarte izango da astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria... izango dituzte haurrek, besteak beste.

3 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek eman dezakete izena, Galtzaundiko egoitzan (Nafarroa etorbidea 6, behe), ekainaren 1etik 15era. Prezioa haur kopuruaren arabera izango da. Begirale izateko aukera ere badago.

Informazio gehiago nahi duenak, 943 655004ra dei dezake.

## Tolosako Kantarirako entsegua izango da bihar, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Datorren larunbatean, hilaren 30ean, hilero bezala, Tolosa Kantarirako ekimena izango da, Tolosa Alde Zaharreko kaleetan, 12:00etatik aurrera, Tontokalen elkartu ostean. Ohiko moduan, «euskaraz kantatzea atsegin duten guztiei irekita» egongo da. Larunbatekoan, Giroarte dultzainero taldearen laguntza izango dute.

Hala, larunbaterako prestatzeko, entsegua egingo dute bihar, Kultur Etxean, 20:00etan. Larunbateko abestiak kantatuko dituzte bertan, Evaristo Elduairen eta bere laguntzaileen gidaritzapean. Entsegua irekia da, eta parte hartzeraren gonbidatzen dute herritar oro.

## Guztietaz ikasteko aukera baitago

**GIZARTEA** ■ Ereite elkarteak Mundujaia izenarekin antolatutako ekitaldiei herenegun eman zitzaion amaiera. Larunbatean, egun osoan zehar, lurralde ugari ezagutzeko aukera izan zen Plaza Berrian, eta herenegun, berriz, kultura arabiarren txanda izan zen. Mundujaiarako atondu zuten haiman askotariko tailerrak jarri zituzten, batez ere, gaztetxo ugariak parte hartu zutelarik. Horretaz gain, sabal dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek. IDOIALAHIDALGA



**G Gutunak**

**Txapin Festa 09 Zorionak!**

Zorionak Txapin Festan parte hartu zenuten eta genuen guztiei! Bigarren urtez jarraian arrakastaz burutu da herriko gazteek antolatutako festa egun herrikoi, parte-hartzaile, euskaldun eta parekidea.

100 lagun inguru bildu ginen Abastosen egin genuen bazkarian, baita beste hainbat gazte ere egun osoan zehar antolatu ziren ekimenean (poteoa, kalejira, perkusio ikastaroa, herri jolasak, kontzertuak...). Giro sano eta atseginetan joan zen eguna eta eguraldiak ere lagundu zigun festa aurrera eramaten.

Nabarmentzekoa da, antolaketan izan zen elkarlana eta parte-hartzea. Beste behin ere gure herriko koadrila, gazte lokal eta belaunaldien arteko mugak gainditu eta guztien festa egin dugu Txapin Festa. Orain arte bezala jarraituz gero, etorkizunean, ziur etorriko direla Txapin Festa gehiago ere. Zorionak denoi! Gora Tolosako gazteria!

**Txapin Festako antolatzaileak.**  
Tolosa.

**T Telefonoak**

**Larrialdiak. ((112))**

**OSASUNA.**

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Refre:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarzan autob.:** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**lurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Bernardo Bidaola 'Txirrita'-ren omenaldia eragotzi du Ertzaintzak

**Politika** » Herenegun eguerdirako deituta zegoen ekitaldia, Uzturren; ertzainek bidea moztu zuten hau eragozteko.

**ERREDAKZIOA**

*Udalak ahaztutako biktimak* izenburupean aldizkari bat argitaratu du Tolosako ezker abertzaleak. Honekin, «Udalak antolatutako egitasmoan baztertu eta ahaztutako biktimak, Udalarentzat existitu ere egiten ez direnak» gogoratu nahi dituzte. Hori dela eta, argitalpenaz gain, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. GALEk eraildakoak, torturatuak, sakabanaketa pairatzen dutenak eta Apartheid-a izango dira besteak beste, oroituak dituzten «biktimak».

Gaur Pello Odriozolaren egoera salatzeke, elkarretaratzea egingo dute Plaza Zaharrean. Espainiako Auzitegi Goreneko 197/2006 doktrina (Parot doktrina) ezarri zioten tolosar presoari, 10 urtez luzatuz zigorra. 21 urte daramatza jada espetxean. Pasa den urteko uztailearen 2an kaleratua izan behar zen, kondena osoa beteaz baitzuen, baina 2018ko urtarilaren 19ra arte luzatu diote zigorra.

**Txirritaren omenaldia eragotzi zuten atzo Ertzaintzak**  
Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, Bernardo Bidaola Txirrita-ri omenaldia egin behar



Ertzaintzak debekatu arren, zenbait lagunek omenaldia egin zioten Txirrita-ri. HITZA

**» EKITALDIK**

**Maiatzak 26, gaur**

■ **Elkarretaratzea.** 19:30ean, Plaza Zaharrean izango da ekitaldia, *Pello ere biktima da* lelopean.

**Maiatzak 28, osteguna**

■ **Mahai ingurua.** 19:30ean, *Ahaztutako biktimak* izenburupean, mahai ingurua izango da. Bertan ondorengo hizlariak hartuko dute parte: Martxelo Alvarez (Ahaz-

tuak), Mattin Troitiño (Etxerateko bozeramailea), Andoni Txasko (Martxoak 3), Martxelo Otamendi (TATEko kidea).

**Maiatzak 29, ostirala**

■ **Elkarretaratzea.** 19:30ean, *Hauek ere biktimak dira Euskal Herri biktima* lelopean elkarretaratzea egingo dute Triangulo plazan.

zioten herenegun eguerdian. Hau 12:00etarako antolatuta zegoen, Uzturre mendiarren tontorrean. Txirritaren hilketaren 33. urteurrena betetzen zen herenegun, eta hau gogoratzeko asmoz, hainbat

jende gerturatu zen Tolosako mendira. Urtero egiten dute data hauetan omenalditxoak, eta orain artekoetan ez da eragozpenik izan. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakitera eman duenez, ha-

maikak aldera, Tolosako komisaldegitik Uzturre aldera abiatu ziren bost 4x4 motako ibilgailu eta Uzturrera joateko pistak hartu zituzten, hara hurbiltzen ziren pertsonen, bozgorailu bidez, ezin zirela igaro eta behera jaisteko esan zieten. Baina lehenagotik 30 pertsona inguru zeuden Uzturreko gailurraren inguruetan, eta hauek omenaldia egin zioten Txirritari. Lore eskaintza egin zioten lehendabizi, eta ondoren, aureskuak dantzatu zioten. Handik bi ordutara, Ertzainek alde egin zuten Uzturreko inguruetatik, bidea irekiz. Amaitzeko, Ibarrako Izaskun auzoan Txirrita omentzeko beste aureskuak bat dantzatu zuten eta *Eusko guda-riak* abestu.

## Tolosa-Ibarrako A eta B taldeek ordezkaturako dute eskualdea lurraldekako txapelketan

**Xakea** » Anoetan jokatu dira Kutxa Xake Topaketan lurraldekakoak, eta bertan irabazi dutenak, Beasaingo finalean izango dira.

**ERREDAKZIOA**

Pasa den igandean Kutxa Xake Topaketan lurraldekakoak amaitu ziren. Aurten lehen aldiz Tolosaldeak bere lurraldekakoa izan du. Anoetan jokatu da, Abraham Olano kiroldegian. Anoeta, Irura, Tolosa, Ibarra, Villabona, Andoain eta Alegiako ikasleen artean bederatzita talde alebin osatu dira eta horietatik ekainaren 14an Beasainen jokaturako den finalean parte hartuko duten ordezkariak zein izango diren erabaki da.

Tolosa-Ibarrako A eta B taldeek amaitu dute lehendabiziko bi pos-



Anoetako kiroldegian bederatzita talde alebin lehiatu dira; irudian, pasa den igandeko saioa. HITZA

tuetan eta beraz finalerako txartela eskuratu dute. Hirugarren Villabona-Andoaingo taldea izan da. Hauek beste lurraldekakoak amaitu arte itxaron beharko dute

oraindik baina ziurrenik finalean izango dira baita ere. Atzetik Anoeta eta Irurako taldeak sailkatu dira eta finalera joaterik izango ez duten arren bere lehendabiziko

parte-hartzean oso itxura polita eman dute.

Nesken parte-hartzea nabarmendu dute antolatzaileek, Anoeta eta Irurako 16 izan baitziren.

# Villegas eta Lasa azkarrenak Aizkorri-Zegama maratoian

**Kirola** » Eskualdeko lehen bi korrikalariak denbora berdina egin zuten: 4:48:41; guztira Tolosaldeko hamabi heldu ziren helmugara.



Herenegun, korrikalariak Otzaurten, lainoan. ION INAKI IZAGIRRE/GOERRIKO HITZA

## ERREDAKZIOA

Eguraldi goibela izan zuten herenegun Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartu zuten mendizaleek. Guztira 400 korrikalari irten ziren zortzigarren edizio honetan ibilbidearen 42 kilometroak osatzeko, eta 380 heldu ziren helmugara; tartean Tolosaldeko hamabi korrikalari izan ziren, guztiak gizonetzakoak. Denek lortu zuten helmugara heltzea, eta azkarrenak Jose Manuel Villegas tolosarra eta Luis Lasa ibartarra izan ziren, denbora berdina egin zutelarik (4:48:41).

Saillapen orokorrari begiratuta, Ricky Lightfoot ingelesak (4:03:12) irabazi zuen gizonetzakoetan, eta Emanuela Brizio italiarrak (4:38:19) emakumezkoetan. Biek ere lehenbiziko aldia zuten Zegama proban. Proba ona osatu zuten bi korrikalariak; Lightfoot-ek, gainera, jaitsiera ikusgarria egin zuen, helmugan bi minutu pasako aldea atera ziolarik bigarrenari.

**Zuzenketa.** Pasa den igandeko alean Felix Irazustabarrenak 'Uzturretik' saillean zutabea idatzi zuen. Bertan azaltzen ziren azken lerroak ez ziren bere zutabearenak, beste testu bati zegozkien. Barkatu eragozpenak.

Hala ere, Rob Jebbek 2005ean egindako 3.53.18 markatik oso urrun geratu ziren Lightfoot.

Mendi Lasterketen Munduko Koparako bigarren proba puntuagarria izan zen Zegama-Aizkorrikoa. Eguraldi kaxkarra izanagatik jendetza hurbildu zen korrikalari animoak ematera eta ikuskizunaz gozatzera. Goi mendian, hala ere, oskarbi izan zen.

**Lehen euskaldunak, laugarren Euskaldunak ez zen podiora igo, emakumezkoetan nahiz gizonetzakoetan ere pauso batera geratu zirelarik; hala, laugarren postuarekin konformatu behar izan zuten Fernando Etxegarai nafarrak, batetik eta Alizia Olazabalek, bestetik.**

Beteranoen saillapenari dagokionez, emakumezkoetan saillapen orokorreko saillatu berberak eraman zuen lehen postua, hau da, Emanuela Brizio. Gizonetzakoetan, aldiz, Ricardo Mejia (4:05:28) izan zen azkarrena.

## » ESKUALDEKOEN SAILKAPENA

Korrikalaria	Denbora
57. Jose Manuel Villegas Marques (Tolosa)	4:48:41
58. Luis Lasa Muñagorri (Ibarra)	4:48:41
69. Pedro Garduño Tena (Anoeta)	4:54:46
79. Joseba Tobar Goenaga (Tolosa)	4:56:33
83. Anjel Eizagirre Etxeberria (Lizartza)	4:58:33
114. Joxean Alberdi Collantes (Zizurkil)	4:07:15
121. Ion Azpiroz Azpiroz (Berastegi)	5:10:20
124. Imanol Zubillaga Maya (Ibarra)	5:11:41
140. Ion Zubillaga Ugartemendia (Berastegi)	5:19:44
167. Joseba Usabiaga Amondarain (Tolosa)	5:27:10
241. Xabier Goenaga Lopetegi (Tolosa)	5:55:18
346. Ricardo Cabanillas Arevalo (Tolosa)	6:51:15

## Jubilatu bazkarian «giro alai»

**ALKIZA** » Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten herrieta-ko jubilatuek Aiztondoko Jubilatuen II bazkaria egin zuten herenegun. Goizean meza entzun zuten eta ondoren, toka jokoan aritu ziren. Emakumezko garailea Bittori Letamendia alkizarra izan zen; gizonetzko garailea, berriz, Manuel Aburuza adunatarra suertatu zen. Eguraldi txarra izan zuten baina umore onean aritu ziren guztiak ere. Ondoren, Alkizako Ostautan bazkaria izan zuten. Bakaria bukatu ondoren, Martin Goenagak bere eskusoinuarekin alaitu zuen arratsaldea. HITZA

## Laburrak

### Emakumearen osasunaren egunaren harira, ekitaldiak

**ANOETA** » Etzi Emakumearen osasunaren nazioarteko eguna da eta horren harira, Berdintasun zerbitzuetik ekintza bat antolatuta dute egun honetarako, 19:30etik aurrera, Anoetako udaletxean. Bilgune Feministako nesken laguntza ere izan dute ekitaldia antolatzerakoan; lehenik eta behin, Test labor-metrajea izango da ikusgai, eta jarraian, Bilgune Feministakoek abortuaren inguruan duten ikuspegia azalduko dute, solasaldi-etzabaidarako tartearekin.

### Uztailako kirol ludotekan izena emateko aukera

**ANOETA** » Abraham Olano udal kiroldegia, Anoetako Udalaren laguntzaz, 5-12 urte bitarteko haurrentzat kirol ludoteka antolatuta du uztailerako. Bi txanda izango dira lehen hamabostaldia (1etik 15era, biak barne) eta 2. hamabostaldia (16tik 30era biak barne), astelehenera ostiralera eta 10:00etatik 13:00etara. Interesa dutenek kiroldegian bertan eman dezakete izena, ekainaren 20ra arte. Hamabostaldi bakoitzan izena emateak 35 euroko kostua izango du.



## harpidedun izateak badu saria

### ① 2 lagunentzako otordua




#### Aburuza Sagardotegian

Olatza Baserria • Aduna  
Tel.: 943 692 452 - Faxa: 943 692 153  
aburuza@sidrasaburuza.com

### ② 2 sarrera kontzerturako

#### Dulce Pontes

Ekainak 6 • Larunbata  
20:30ean • Tolosako Leidorren



### ③ 3 diskoz osaturiko sorta

baga-biga  
disketxearen eskutik



### ④ HITZAko materiala



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta osteguneari, 09:00etatik 17:00etara. Sariadunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**





## «Komunikazioa beharrezkoa delako»

**ALBIZTUR** ● Kultur Astearekin jarraituz, asteburuan tartea antzerkiari egin zioten albizturterre. Eskolako ikasleek prestatutako *Txiokue* antzezlan aurkeztu zuten: Txinako istorio interesgarri bat kontatu zuten. Neska gazte bati mutila bilatu nahi zion bere aitak, baina neskek zituen gustuko. Azkenean, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi izan zuten. Larunbatean paella-jatea izango da eta etzi arte dago txartela erosteko aukera. Udaletxean edo Herriko etxean lor daitezke. HITZA

## Laburrak

### Festak antolatzen asteko bilera egingo dute bihar

**AMEZKETA** ● Amezketan festa batzordea osatzeko bilera egingo dute bihar, 20:30ean balioanitzeko gelan. Bileran irekia da eta parte hartu nahi duenak bertaratu besterik ez du egin behar. Egitarauari itxura emateko zein proposamenak botatzeko balioko du bilera honek.

### Etziko Ohiko bilkuran presoaren aldeko mozioa

**AMEZKETA** ● Etzi 20:30ean Amezketako udaletzeko pleno aretoan ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dira: 2009-2012 urte bitarteko epealdiko ekonomiko eta finantza plana; Amezlan SL permutaren erresoluzio baldintzaren aldatzea, banketako abala onartuz; isurketa Kanonaren errekurtsuaren berretsipena eta presoaren aldeko mozioa.

### Frontenis Txapelketako izen-emate epea bukatzen

**BALIARRAIN** ● Baliarraingo II. Frontenis Txapelketan parte hartzeko izena emateko aukera etzira arte dago. Aralar Kirolak (Tolosa) edo Urrutia kirolak (Beasain) egin daiteke bost euro ordainduta. Emakumeen arteko binakakoa izango da eta gizonezkoen arteko binakakoa. Helburu nagusia ondo pasatzea da. Lehen partidak ekainaren 6an jokatu dira, eta finala ekainaren 14ean izango litzateke. Beraz bi asteburuz jokatu dira partida guzti-guztiak. Orduak izena ematen duten kopuruaren arabera moldatu dituzte.

# Gaur eta bihar kadeteak ariko dira

**Pilota** » Asteburuan zehar hainbat mailatan partidak jokatu dituzte; Udaberri Txapelketan ere ari dira hainbat pilotari.

#### ERREDAKZIOA

Hitza Pilota Txapelketako kadeteen arteko bigarren jardunaldia gaur eta bihar jokatu dira. Gaur bertan Elorza eta Azketa ariko dira Bidanien 19:00etatik aurrera. Ondoren Usandizaga eta Maizaren txanda izango da. Hirugarren partidetan Zabala eta Zelaia eta bukatzeko, Gorostidi eta Aristimuño, hain zuzen.

Bihar ordu berean, Labaka eta

Paredesen artekoa, Mayans eta Jauregiren artekoa, Artola eta Arregi eta Jaka eta Barandiaranen artekoa jokatu dira. Guztira, lau partida beraz.

#### Asteburuko emaitzak

Asteburuan zehar benjaminak, alebinak, infantilak, jubenilak eta 22 urte azpikoak aritu dira. Hauek izan dira emaitzak: benjaminetan, Yerey-Elizegi 13, Unanue-Exposito 16; Erdozia-Noble 5, Oiarbide-Otamendi 16; Intxaurren-Otamendi 16, Mendia-Arandia 0.

Alebinen artean: Plazaola-Altuna 16, Garin-Goikoetxea 12; Bereziartua-Garmendia 12, Aizpuru-Zufaurre 16; Zubillaga-Azpiroz 8, Iturbe-Mendia 16.

Infantilen emaitzak (Adunan) hauek izan dira: Orbegozo-Balardi 8, Erasun-Irisarri 18; Mateos-Garzia 9, Aizpuru-Arrue 18; Mujika-Zabala 15, Altuna-Lujanbio 18.

Beotibarren jubenilak eta 22 urte azpikoak aritu ziren goizean. Jubenilek 18ra jokatu dute eta ez 22ra. Mendinueta-Ugalde bikoteak 2 tanto egin zituen eta Jauregi-K. Galarza erraz gailendu zen. Madariaga-Murgiondok 10, X. Urbietta-Pazos 18. 22 urte azpikoaren artean Iturrioz-K. Galarraga 22, Ropon-Leunda 19.

#### Udaberri Txapelketakoak

Eskualdeko pilotari batzuk Udaberri Lau T'erdiko Txapelketan ari dira. Asteburuan zehar besteak

beste, Bidanien eta Ibarren jokatu dituzte norgehiagokak.

Zazpi partidatik Aurrerakoek lau irabazi dituzte. Bidanien eta Ibarren aritu dira jokatu kadete eta jubenilen mailan.

Barandiaran kadeteak aise irabazi zion Etxegoienei (Hernani), aurkaria batean utzita. Elustondo ere gailendu zen, kasu honetan 22-11 Gorostidiren aurka (Intxurre). Gurrutxagak (Aurrera) 11 tantorekin bukatu zuen Behar Zanak Nazabalen aurrean. De la Sotillak ere 9-22 bukatu zuen partida Arzelusen aurrean jokatu.

Datorren asteburuan partida gehiago jokatu beharko dituzte, Udaberri Txapelketa oraindik ez baita bukatu.

# Himalayako inguruak hobeto ezagutzeko proiektzioa gaur

**Alegia** » V. Kirol Astea gaur hasiko da; bihar, aldiz, lasterketako motorraren inguruko proiektzioa izango da bi herritarren eskutik.

loturarik ez duena: Ibai Iglesiasen eta Jon Ander Rodriguezen eskutik motorraren lotutako erakusketa moduko bat egingo dute Kultur Etxean. Jon Ander Rodriguezen motorraren ibiltzen da, eta Ibai

Iglesias, berriz, kart kros autoarekin. Hauen berri gehiago jakiteko han izango dira bi alegiarrak.

Etzi 19:00etan pilotari profesionalekin hitzaldia izango da, eskuen zainketaz aritzeko.

#### ERREDAKZIOA

Alegiako Kirol Astea gaur bertan hasiko da. Alegiako kirol batzordeak antolatutako aste berezi honetan gaur Josu Bereziartua azpeitiarraren *Himalayara familiar* proiektzioa izango da 19:00etan Kultur Etxean. Bereziartua bere emaztearekin eta seme-alabekin joan zen Himalayara eta bertako egonaldia kontatuko du hango bizimodua azalduz.

Bihar, berriz, 19:00etan ere argazki-bideo erakusketa jarriko dute baina aurrekoarekin batere

asteartetik aurrera  
**ARRAINDEGIA ZABALIK**

**azoka**

Euskal Herria kalea, 45 • Ibarra • ☎ 943 67 62 70

Euskarazko **lehen sukaldaritza bilduma!**

**berriaren** harpidedun eta irakurleek erdi prezioan: **12€**

Bete ezazu maiatzaren 20tik 31 bitartean BERRIAn argitaratuko den **erreserba kupoa** eta utzi zure kioskoan **maiatzaren 31** baino lehen. Bi asteren buruan kiosko berean jasoko duzu liburua.

Laguntza FAGOR

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



## Helduek ere izan dute euren eguna

**LIZARTZA** • Lizartzako Udal Alternatiboak antolatutako Kultur Astea igandean amaitu zen. Pasa den aste osoan zehar ekitaldi ugari izan dituzte herrian; Ebel Emakume Baserritarren Elkartearen *Baserritik baserrira* antzerki emanaldia, ESAI Ten hitzaldia, pintura erakusketa... eta azken egu-

na, gainera, helduena izan zen. Lehenik eta behin, hamaiketako izan zuten elkartearen eta ondoren pilota saioa ere ikusi ahal izan zuten. Bazkaria egun ostean frontoian herri kirolak ere izan ziren, Lizartzakoak Gazteluko- en kontra aritu zirelarik. **L. LAHDALGA**

## Laburrak

### San Bartolome jaiak antolatzeko bilera

**IBARRA** • Ibarako Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak esan duenez, abuztuko San Bartolome jaiak antolatzeko bilkurara deitu du etzira- ko, hilak 28, 20:00etan Udaletxeko Batzar Aretoan. Udal Batzordeak ibartar guztiak gonbidatu nahi ditu bilkuran parte hartu eta ekarpenak egitera.

### Idoia Sanchez ipuin kontalaria gaur eta etzi

**ALEGIA** • Galtzaundi Euskara Taldeak Idoia Sanchez ipuin kontalaria- ren saioak antolatu ditu datozen egunetarako. Horiek horrela, lehen bi saioak gaur bertan izango dira Alegiako Liburutegian 17:15ean, lehenik, eta Orendainen 18:30ean, ondoren. Ostegunean, aldiz, Belauntzako Kultur Astearen baitan eskainiko du saioa 18:30ean herriko tabernan.

## Ostiral iluntzeko suziriarekin hasiko dituzte herriko jaiak

**Txarama** » Ostiralerako eta larunbaterako ekitaldi ugari antolatu dituzte; pintxo lehiaketa, jokoak, bertsolariak...

Jaietako emateko suziria ostiralean, 20:30ean, botako dute eta ondoren, barrikotea egingo dute herriko plazan, bakoitzak gustoko duena etxetik eramanda. Barrikotea bukatuta Txerri Festa- ko bideo emanaldia eskainiko dute.

### Larunbata, egun nagusia

Jaietako bigarren eta azken eguna larunbatean izango da. 11:00etan suziria botako dute eta gero Leaburu-Txaramako dan-

tzari gazteen dantza saioa izango da. Dantza saioa eta gero, Toka Txapelketa egingo dute, irabazle- entzat saria izango delarik. 13:00etan, berriz, Pintxo Lehiaketa egingo dute eta bakoitzak gu- txienez degustaziorako 6 pintxo berdin eraman beharko ditu. Irabazleek sariak jasoko dituztela ere iragarri dute jaietako antola- tzaileek.

16:00etan haurrentzako eta hel- duentzako jolasak egongo dira eta ondoren txokolatada egingo dute.



laz ere egin zuten pintxo lehiaketa Txaramako jaien baitan. **E. EZEIZA**

Herri Afaría ere egingo dute eta parte hartu nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna. Interesatuak elkartearen eman dezakete izena 19:30etik 21:00etara edota telefono hauetara deituta: 650 276 510 edo 646 642 267.

Afariak irauten duen bitartean Astiasaran trikitilariak izango dira eta baita Amaia Agirre, Mikel Arri- llaga, Jokin Labayen eta Aitzol Bar- andiaran bertsolariak ere. Iker Iriarte ariko da gai jartzailea lane- tan.

## Hilberriak

### IDOIA GOENAGA ALBERDI

Oraituz zure begi urdinetan  
utzi gaituzu penetan  
bizirik zaude benetan  
gure amets eta bihotzetan



**AZKOITIA**  
2009ko  
maiatzaren 26a



**Azkoitiko Ikastola Xabier**  
Munibeko ikasle eta irakasleak

### IDOIA GOENAGA ALBERDI

Goian bego

*Eskerrak zure alaitasunagatik  
mila esker zure umore onagatik  
eskerrak eskaini diguzun hainbeste une pozgarriengatik  
mila esker zure bizkortasun eta adiskidetasunagatik  
eskerrak, mila esker, zu, zeu, zarena izan zarelako*



**AZKOITIA**  
2009ko  
maiatzaren 26a

**NOLATAN ZUTAZ AHANTZII!**

**Urola Ikastola Azkoitia-Azpetia BHlko**  
Zuzendaritza, ikasle, irakasle, langile eta gurasoak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

### JOSEPI URKIZAR LULOAGA

ANDREA

Atzo hil zen, 64 urte zituela, Elizakoak eta Aita San-  
tuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Lore bat bezala joan zera  
udaberria heltzean  
gure bihotzean izango zera  
bizi geran artean.



**LIZARTZA**  
2009ko  
maiatzaren  
26an

**Lantokiko lagunek**

### DOMI ARRIETA LOIDI

(Herenegun hil zen Lezon, 81 urte zituela)

Argitu ezan kopeta,  
Penak eurentzat gordeta.  
Goizero sortuz bizitza ere  
Hortxe zegoen eta.



**LEZO**  
2009ko  
maiatzaren 26a

**Zure senideak**

### DOMI ARRIETA LOIDI

Notiziak badituz Lezoko herritik,  
Domi juan zarea, txori bezala,  
Jaizkibelgo magalera.  
Ez adiorik gure artean, maite izango  
zaitugu beti, Domi...  
Muxu handi bat.



**LEZO**  
2009ko  
maiatzaren 26a

**Ostiraleko enkarteladako lagunak**



Xiberoako herririk txikienean, Etxebarren, Gau Eskolaren herri bazkarian Ibarrik joandako mendizaleak. A. IMAZ

## Azken irteera eta denboraldiko balantzea Xiberoaren bihotzean

**Ibarra** » Asteburuan amaitu da 'Euskal Herrian zehar, geurea ikurrina!' ekimena. Denboraldi berria prestatzen hasi dira jada.

### ASIER IMAZ

**A** maitu dira «mendi irteerako». Azkena Xiberoako izan da, asteburu honetako. Bertan, partaideek orain arteko ibilbidea aztertu zuten, eta aurrera begira gauza batean ados gelditu ziren: «Hurrengo denboraldian Euskal Herria ezagutuz jarraitu beharra dago».

### Santa Graziko apeztexea

Ibarriko Bai Euskal Herriari herri ekimenak eta Haitzetan Raju mendi taldeak, irailaren 28an jarri zuten lehen ikurrina. Zarautz eta Deba artean kokatu zuten euskal ikurra. Horrela jarri zuten mar-txan *Euskal Herrian zehar, geurea ikurrina!* ekimena.

Iragan asteburuan denboraldiko zazpigarren irteera egin zuten Ibarrik, asteburu pasa Xiberoara joan ziren.

Larunbatean goizean goiz irten ziren herriko plazatik Santa Grazira. Apeztexean utzi beharrekoak utzi eta Kakueta inguruak ezagutzera joan ziren «turistak». Arratsaldean Maulera jaitsi ziren, zesta punta partida bat eta gaztelua ikustera.

Iluntzearekin batera, Santa Graziko apeztexera itzuli ziren, afaria eta zazpi mendi irteeren inguruko balantzea egitera.

### «Bizipenak pilatuz, gozatzen»

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju taldeak duela bi urte hasi ziren mendi irteerak antolatzen. Aurtengoa beraz bigarren denboraldia izan da. Balantzea egiterako uanean jende kopurua eta bertan bizi ohi den giroa aztertu zituzten: «Lehenengo urtean aurten baino jende gehiago joan zen irteeretera. Hala ere animatzen den guztia oso gustura itzultzen da eta kontuan hartuta gehiago ezin dugula egin, publikitate aldetik eta abar, horrela jarraitu beharko dugu: bizipenak pilatuz, gozatzen. Batzuetan paraje ederrak ezagutu ditugu, beste batzutan zorte handiagoa izan dugu eta lekuko euskaldunekin sortu ditugu harremanak. Euskal Herria barnetik ezagutzea bezalako altxorrik ez dago guretzat».

### «Xiberoaren bihotzean gaude»

Santa Grazi herri txikia denez eta parranda egiteko aukera handirik ez zegoenez, biharamun handirik

gabe jaiki ziren «mendizaleak» igandean.

Tote apaizarekin Atharratzen zuten hitzordua 12:00etan, aperitifia egiteko. Tote ez zuen hutsik egin eta mahaia jakiz eta edariz jantzi zuen: whisky botilabat, bi oilasko, ... Santa Grazi eta Atharratzeko apaizak ibararren galderak erantzun zituen, Xiberoa gaitzat hartuta: gazteak, euskara, kultura, ekonomia...

Aperitifaren ondoren bazkal-tzera lurraldeko herririk txikienera joan ziren, Etxebarrera. Bertan Mauleko AEKren Gau Eskolak axuri lehiaketa ospatu zuen. Herri kirol erakustaldia eta jolasen ondoren, 100 lagun inguru elkartu ziren mahaiaren inguruan. Euskal kantu zaharrak eta bertsoak ez zen falta izan bazkalostean. Jaia goiz utzi ondoren, Ibarriko bideari heldu zioten «mendizaleek», bizitako gogoratuz eta gozatuz: «Xiberoaren bihotzean egon gara».



Tote apaizarekin aperitifia egin zuten Ibarrik Atharratzen. ASIER IMAZ

## Ruben Saralegi eta Anjel Arrospide finalean izango dira

**Aizkora** » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan leitzarra eta leaburuarra egongo dira maila desberdinetan.

### A. IMAZ

Anjel Arrospide leaburuarrak Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finala jokatuko du Elite mailan. Donato Larretxeari irabazi zion Arrospidek herenegun, ezusteko handia emanaz.

Ruben Saralegik 19 urte azpiko-en mailan jokatuko du finala. Leitzarrek larunbatean, Amazabal pilotalekuan, Ohian Larretxea gainditu zuen.

### Saralegi Amazabalen

Leitzako Amazabalen bi aizkora norgehiagoka jokatu ziren larunbatean. Bertan, etxeko aizkolariak Ohian Larretxeari 42 segundoko aldea atera zizkion, finalerako txartela lortuz. Azpeitian jokatuko den azken lehian Ander Erasun edukiko du aurrean Saralegik. Erasunek 19 eta 23 urte azpiko-en mailan finala jokatuko du.

### Ezustekoa Arrospidek

Donato Larretxea gainditzea ez da erraza, baina herenegun Anjel Arrospideren aurrean amore eman zuen. Leaburu aizkolaria 2:22 segundoko sartu zizkion Larretxeari probaren amaieran Maetzun, finalerako sailkatuz.

## Areso laugarren gelditu da 680kilotan

### A. IMAZ

Goiherri A taldeak irabazi zuen lur gaineke Euskal Herriko Sokatira Txapelketako txapela 680 kilotan. Finala Endoigan (Gipuzkoa) jokatuz larunbatean.

Aresori dagokionez, Endoigan hirugarren postua lortu zuen, Gaztedirekin berdinduta. Saillkapen

orokorrean berriz 4. gelditu dira aresoarrak.

Hemendik aurrera, bi jardunalditan, 640 kiloko txapelketa jokatuko da. Lehen tiraldiak ekainaren 13an izango dira, Martiartu-Goiherri (Bizkaia). Bigarren jardunaldia eta finala ekainaren 21ean izango da, Maetzun (Araba).

## Leitzako pilotari gazteen partidak asteburuan

### A. IMAZ


Aurrerako pilotariak, Nafar Jokoen baitan, Amazabal pilotalekuan zazpi partida jokatuz zituzten larunbatean. Hauetatik sei irabazi zituzten leitzarrek.

Bestalde, Lizarrako eta Ordiziako Txapelketetan ere leitzarren presentzia aurreikusten zen.

### Lizarra eta Ordizia

Ordiziako Txapelketan Olanok eta Garcienaren jokatuko behar zuten larunbatean. Bikotearen partida atzeraturik gelditu zen ordea.

Lizarran Barriola-Iparragirrek 4-18 galdu zuten. Olano-Tolosak berriz 18-9ko garaipena lortu zuten.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.


**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldek beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari** 

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Albiztur.** Hilaren 30eko, Kultur Astearren barruan, paella jaterako txartelak 5 euroren truke eros daitezke udaletxean zein herriko etxean jateratzen. Frontoian presatuko duten paellarekin batera postrea, kopa eta kafea izango dira.
- **Alegia.** Ipuin kontaketa Alegian 17:15ean liburutegian.
- **Berastegi.** Odola emateko aukera izango da Muñagorri eskolan 18:00etatik aurrera.
- **Ibarra** Bihar, Santiago Goñi Za-

bala testamenduen araudiaz ariko da Bizi Nahi jubilatutako elkartearen 17:00etan.

- **Orendain.** Ipuin kontaketa Orendainen 18:30ean liburutegian.
- **Tolosa.** Plaza Zaharrean 19:30ean elkarretaratzeara Pello Odriozolaren askatasunaren alde.
- **Tolosa.** 7 eta 15 urte arteko gazteentzako pintura lehiaketa elkarbizitza. Lanak hilaren 25etik 29ra entregatu behar dira Kultur Etxearen edo Sükrü Karacusen estudioan

(Zabalaretza 5). Oinarriak: [www.tolosaldeko-hitza.net](http://www.tolosaldeko-hitza.net).

- **Tolosa.** Musika udalekuak Eduardo Mokoroa udal musika eskolan ekainaren 29tik uztailearen 10era, 09:30etik 13:30era, 4 eta 12 urte artekoentzat: jolasak, dantzaldiak, kontzertu didaktikoak, abesbatza, gimnasia... Izen-ematea, musika eskolan.

### Kirol Astea

- **Alegia.** Himalaiara familiarekin ikus-entzunezko proiektzioa eskainiko du Josu Bereziartuak

19:00etan Kultur Etxean, Kirol Astearren baitan.

### Kultur asteak

- **Leitza.** XXXI. Kultur Astearren baitan, 19:00etan Liburutegian hitzaldi-ikastaro laburra Javier Fernandezek eskutik: *Ordenagailu bat erosi duzula?* Bihar, 19:00etan Aurreraren Ima Zestauren hitzaldia: *Haurren adopzioa*. Ondoren, jolasaldi irekia.

### Kirola

- **Baliarrain.** Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa antolatuko dute. Bertan parte hartzeko, gizonetako banaka eta emakumezkoek bina, izena eman dezakete Aralar Kirolak-en (Tolosa). 5 euro balio du. Txapelketa ekaineko lehen bi asteburuetan jokatu da.

### Erakusketak

- **Ibarra.** Urtzi Uriarte argazkilaria *Te pito o te henua* erakusketara Benito Izagirre kultur etxean Pascua uhartean.
- **Tolosa.** Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren erakusketaren irekiera Aranburu Jauregian, bertan izango da ekainaren 27ra arte.
- **Tolosa.** Txileko Kiltur kolektiboren margolanak ikusgai GKO Galleryn.

- **Tolosa.** Noelia Crujeiras artista-oren olio-lanak, burni eta marmore hautsean egindako artelanak Itaie tabernan.
- **Zizurkil.** *Oteiza, bizirikoa proiektua* erakusketara Atxulondo kultur etxean. Gaur da hau bisitatzeko azken eguna.

### Irteerak

- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteak Laredora irteera antolatuko du ekainaren 18rako: 07:45ean abiatu, gosaria Sidreria de Liendo jate-txean, enpresa baten aurkezpena, bista gidatua, hondartza, bazkaria, oparia eta dantzaldia. Izen-ematea, elkartearen.
- **Ibarra.** Maitzaren 30 eta 31n moto irteera Nafarroako Acedora. Izena [langostinomotofesta@gmail.com](mailto:langostinomotofesta@gmail.com) helbidean edota 630 784213, 670 417915 edo 636 403170 telefonotatik.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Lizartza (4 urte).** Egunen batean hiruok batera ospatuko dugulako. Jo ta ke irabazi arte! Aitaxo eta amatxo.



### Urte askoan!

**Nerea (Alegia).** 6 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.



TOLOSAKO  
INMAKULADA  
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)  
943673629

### HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

Erdi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

AURREMATRIKULAK  
EKAINAK 1-12  
BITARTEAN

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ZATOK GU EZAGUTZERA

digitala  
**h**  
@

Ostirala, maiatzak 29, 18:00etan  
**INAKI IRAZABALBEITIA**  
Independentistak eta Ezkertiarak  
koalizioko Euskal Herriko zerrendaburua

elkarrizketa  
digitala

Bidali zure galdera!



HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)